



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 4a

129. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da lan batzorde bat sor dezan, zeinak helburu izanen baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusaren jarduketarako eta etorkizuneko garapenerako ildoak finkatu eta zehaztea. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areago dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan. David Anaut Peña jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzen du Hezkuntza Departamentuaren asmoa, Ingeleseko Ikasteko Programaren ezarpenarako eta irteerarako araudi berariazko bat onestearena. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Vatikanoko estatua-rekin 1979ko urtarrilean sinatutako akordio guztiak indargabetu ditzan. María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide heziketako ikastetxeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Osoko Bilkuran izapidetzea (11. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, “Levántate contra el bullying” elkarteari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko elikatzea kontratatzeko lizitazio-orrietako gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruzkoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtzaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diruzenbatakoei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (16. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan batzorde bat sor dezan, zeinak helburu izanen baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusaren jarduketarako eta etorkizuneko garapenerako ildoak finkatu eta zehaztea.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lan batzorde bat sor dezan, zeinak helburu izanen baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusaren jarduketarako eta etorkizuneko garapenerako ildoak finkatu eta zehaztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat sor dezan, zeinak helburu izanen baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusaren jarduketarako eta etorkizuneko garapenerako ildoak finkatu eta zehaztea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) Foru Komunitaterako etorkizuneko proiektu bat izan da beti, sortu zenetik. Gaur egun azterlanak erakus-

ten ari dira nafar gizartera iristen diren itzulkin garrantzitsuak. Aurreko bilkuraldian Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak agerraldia egin zuen Parlamentuan, IV. Plan Estrategikoa (2016-2019) azaltzeko, eta adostasuna eskuratu zuen epe ertainari zegokionez, baina kanpoan gelditu ziren gai garrantzitsu batzuk, esaterako, alde aurretik eredu garbi bat edukitzea, nahi dugun eta Nafarroak behar duen Unibertsitate Publikorako.

Azken plan estrategikoa garatu diren lau planetatik estrategikoena dela esan daiteke. Elkarlan on baten fruitua da, haren ardatza baita benetan inporta duena, hau da, estrategikoa. Beraz, poztu egiten gara, unibertsitate-komunitateak jarduteko gida bat duelako datozen lau urteetarako.

Baina plan estrategiko bat izan behar da alde aurretik definitutako unibertsitate-eredu baten ondorio logikoa. Duela 35 urte Nafarroak erantzuna eman zion herritarren eskaera bati. Orduko Nafarroak puntu komunak ditu oraingoarekin, jakina, baina aldaketa garrantzitsuak ere gertatu dira, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eredia oraindik bera da, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruaren ondorioz izandako aldaketan, ikaskuntza-ereduen eta graduen bilakaera akademiko logikoa gertatuta ere.

Beste alde batetik, aipatu Plan Estrategikoak (2016-2019) ez du kontuan hartzen eta ez du espresuki aipatzen Tuterako campusa. Komenigarria litzateke plan berri horrek gizarteari helaraztea Tuterako campusari buruzko informazio muntadun eta esanguratsua, herritarrek aukera izan dezaten, gardentasun handienarekin, iritzia emateko eta jarduketak ezagutzeko eta eskatzeko.

Horregatik, garrantzitsua eta beharrezkoa da unibertsitate-ereduaren berrikuspen horretan Tute-

rako campusaren etorkizuneko jarduketarako eta garapenerako ildoak ere sartzea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan batzorde bat sor dezan, zeinak helburu izanen baitu Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako campusaren jarduketarako eta etorkizuneko garapenerako ildoak finkatu eta zehaztea.

2. Batzorde horretan sartuko dira, gutxienez ere, Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Gober-

nua, Tuterako Udala eta NUPeko Gizarte Kontseilua. Parte hartuko dute, halaber, Nafarroako Erriberako eragile eta erakundeek –haietan sartuta EDER Partzuergoa–, ETI Lanbide Heziketako Ikastetxe Politekniko Integratuak, Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak, Erriberako Enpresaburuen Elkarteak, erakunde sindikalek eta, Erriberaren garapenerako faktorea den heinean, Tuterako campusaren etorkizunerako ekarpen muntadunak egin ditzaketen gainerako entitateek.

Iruñean, 2016ko urriaren 21ean

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areago dezan.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Tuterako ETI Ikastetxe Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areago dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lanbide Heziketako ikasketak zutabe garrantzitsu bat dira eta izan dira, gure gazteriarren prestakuntzarako, eta gizartearen garapen eta

ongizaterako ere bai, gizarte horrek itxaropen eta ilusioz betetako etorkizuna eraiki behar duelako, eta eraiki ere etengabe aldatzen eta garatzen ari den ingurune batera egokitzeko gaitasunak dituzten pertsonekin eraiki behar duelako.

ETI ikastetxe integratu politeknikoa Lanbide Heziketarako erreferentziako ikastetxea izan da hamarkadetan zehar, Nafarroan oro har, eta Erriberan bereziki. Eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola ere bai. Ikastetxe horiek prestakuntza eta garapen profesional eta pertsonala ahalbidetu dute ikasle askorentzat, eta ekarpen erabakigarria egin diote Tuterako Merindadeko eta haren eraginpeko eremuko enpresen eta industriaren garapenerako.

Azken urteotan, Hezkuntza Departamentuak eguneratu egin ditu Lanbide Heziketako irakaskuntzak, Espainiako arauak Nafarroakoetara egokitzearen kariaz. Neurri hori Erriberako ikastetxeetako heziketa ziklo gehienetan aplikatu da, ETIn eta Corellako Arte Eskolan.

Gaur egun, ikusirik Erriberak jasaten duen desentplegua, Nafarroako handienetako bat, beharrezkotzat jotzen dugu ildo horretatik jarraitzea, kontuan hartuz, inoiz baino gehiago, enpresen Lanbide Heziketaren arloan dituzten beharri zanak betetzeko prestakuntza egokia ematea, eta gazteen laneratzeari laguntzea ere bai.

Industriako beste jarduera batzuen artean, Erriberan asko dira nekazaritzako elikagaien sek-

toreari lotutako enpresak. Horregatik, nekazaritzako elikagaien industria, eta nekazaritzari eta elikagaiei lotutako guztia aukera bat dira, lanaren ikuspuntutik baliatuz jarraitu behar dena. Egokitzat jotzen dugu, halaber, prestakuntza-eskaintza handitzea hainbat arlotan, esate baterako, osasunlaguntzan, ekintzailtza bultzatzeko prestakuntzan, diseinuan edo automozioan.

Azken batean, ekintza azkarrak bultzatu behar dira, enpresen beharizan zehatzei erantzun ahal izateko eta etorkizuneko erabaki estrategikoak hartu ahal izateko Erriberan Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituzten ikastetxeen prestakuntza-eskaintzaren inguruan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuak premiatzen du Tuterako ETI Ikastetxe

Integratu Politeknikoaren eta Corellako Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolaren hezkuntza-eskaintza areago dezan, gradu berrien bidez, eskualdeko enpresen beharizanei erantzun eta ikasleen laneratzeari lagunduko diotenak.

Halaber, departamentua premiatzen du espezializazio ikastaroak egin ditzan, aipatu ikastetxeetan graduatu diren ikasleentzat eta interesa dutenentzat, gizartean eta enpresan uneoro sortzen diren beharizanen arabera.

Heziketa ziklo berrien eta espezializazio ikastaroen eskaintza eta ezarpenerako egutegia definitzeko, parte hartu beharko dute ukitutako sektore sozial eta ekonomiko guztiek, bai eta eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetako zuzendaritza taldeek ere.

Corellan, 2016ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan.**

### *DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

David Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Toponimia Nafarroako Foru Komunitateak duen ondarea eta aberastasuna da, eta hura zaintzea eta egoki erabiltzea Nafarroako Erakunde Publikoen erantzukizuna eta ardura. Nafarroako toponimia, beraren zenbait alderditan –oikonimia, hidronimia, oronimia, odonimia...–, urte askoan eta hainbat adituren ekarpen teknikoaren laguntzaz landutako ikerketa esparrua izan da. Ikerketaren ondorioz lan ugari argitaratu da, eta toponimiaren normalizazioan eta erabilera ofizialean ere urrats batzuk egin dira.

Euskarari buruzko 18/1986 Legea eta orduz geroztik onartutako hainbat dekretu dira, hain zuzen ere, Nafarroako toponimia arautu duten lege-xedapenak. Horietan, besteak beste, herri-izenen inguruko arauak ezartzen dira.

Euskararen Legeak, alde batetik, Nafarroako toponimoen izendapen ofizialak zein diren argitzea irizpideak ezartzen ditu, legeak ezarritako hiru hizkuntza-eremuetarako irizpideak zehaztuz. Horretaz gain, Nafarroako Gobernuari esleitzen dio Nafarroako herrien izenak ofizial bihurtzeko egitekoa.

Hau da aipatutako 18/1986 Foru Legeak, bere zortzigarren artikuluan, hitzez hitz dioena:

8. artikulua. 1. Foru Komunitatearen toponimoek gazteleraz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

a. Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskalduna izanen da, gaztelerazko beste izen bat izan ezik, kasu honetan biak erabiliko baitira.

b. Eremu misto eta ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gazteleraz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostenari jarraiki eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurrikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenak jartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

Legearen 8. artikulua dioenez, beraz, Nafarroako Gobernuari dagokio herrien izenen izendapen ofiziala erabakitzea, Euskaltzaindiaren alde aurretiko txostenari jarraikiz.

Euskaltzaindiak egina dauka aspaldi Nafarroako herri-izen guztien zerrenda, gaztelaniazko nahiz euskarazko aldaerak jasota, eta bertan zehazten da herrien izen ofiziala zein izan beharko litzatekeen. Lehendabiziko urratsa, horrenbestez, egina dago aspaldi.

Nafarroako Gobernuak, ordea, ez du orain arte legeak esleitu dion egiteko hori gauzatu, eta, udal jakin batzuek bultzatuta ofizial bihurtu diren zenbait herri-izen izan ezik, gainerako kasu guztietan –eremu euskaldunean izan ezik–, gaztelaniazko aldaera da gaur egun ofiziala den bakarra, eta herrien euskarazko izenek ez dute ofizialtasunaren

mailarik lortu, horrek dakartzan ondorio guztiekin: errepideetako errotulazioan gaztelaniazko izenak bakarrik agertzea, kartografia ofizialean, maiz, euskarazko izenak ez agertzea, eta abar.

Nafarroako herrien euskarazko izenak lurralde honen historiaren, aberastasunaren eta ondarearen osagai bat dira, eta ez dago horri uko egiteko inongo arrazoirik. Errealitate linguistiko, soziologiko, historiko eta kulturala den hori ezin da ofizialtasunetik kanpo gelditu, eta ezin da ikusezin bihurtu.

Nafarroako herri-izenen inguruko ikerketa tekniko eta zientifikoa egina dagoenez, alor horretan aholku-emaile ofiziala den instituzioak –alegia, Euskaltzaindiak– bere irizpena emana eta zehaztua duenez, herrien euskarazko izenak Nafarroako Foru Komunitatearen ondarea direnez, eta legeak Nafarroako Gobernuari herri-izen ofizialak erabakitzeko agindua espresuki eman dionez, auzi honetan ere urrats praktikoa eta eraginkorra eman behar dira.

Aurreko paragrafoetan esandako guztia kontuan izanda:

Erabaki proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: Euskarari buruzko 18/1986 Legeak agintzen duena betez, Nafarroako herrien izen ofizialak erabaki ditzala, horretarako erakunde aholku-emaile ofizialaren –Euskaltzaindia– irizpenari jarraituz.

2.- Nafarroako Parlamentuak honakoa eskatzen dio Nafarroako Gobernuari: herrien izen ofizialak erabaki ondoren, izen horien erabilera dagokion esparru guztietan heda eta normaliza dezala, besteak beste, errepideetako eta bideetako seinalizazioan, kartografian eta, oro har, argitalpen guztietan, bereziki erreparaturik hezkuntzaren eta kulturaren alorrean, horretarako behar den plangintza eta programazioa eginez eta behar beste baliabide esleitzuz.

Iruñean, 2016ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: David Anaut Peña

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko du Hezkuntza Departamentuaren asmoa, Ingeleseko Ikasteko Programaren ezarpenerako eta irteerarako araudi berriazko bat onestearna.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko baitu Hezkuntza Departamentuaren asmoa, Ingeleseko Ikasteko Programaren ezarpenerako eta irteerarako araudi berriazko bat onestearna.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko parlamentari Alberto Catalán Higuera, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza-kudeaketaren ardura nagusia duenez, era aktiboan jokatu behar du Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-politika arautzen duten erabakietan.

Hezkuntza-politika batek, bidezkoa izan bada, bermatu behar ditu, besteak beste, aukera-berdintasuna, ekitatea, unibertsaltasuna, inklusioa, kalitatea eta aniztasunarekiko arreta.

Joan den urriaren 25eko Hezkuntzako Bartzordean, Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen araudi berezi bat prestatuko zela 2017-2018 ikasturtetik aurrera Ingeleseko Ikasteko Programaren sarrera edo irteera arautzeko.

PAI ebaluatu aurretik departamentuak aurreikusitako planteamenduaren arabera, zeina kontseilariak berretsi baitzuen, departamentuak ez du inolako erabaki-ahalmenik izaneko ikastetxe publi-

koak PAItik ateratzeko. Ikastetxe publiko gehiago programan sartzeko, beharrezkoa izanen da, klaustruaren eta eskola kontseiluaren erabakiaz gain, egokitasun azterlan bat, Hezkuntza Departamentuak prestatua, zeinean bilduko baitira Ikuskarpenaren Zerbitzuaren txosten bat (plantillak, giza baliabideak, irakasleen hizkuntza-eskakizuna) eta Hizkuntzen Zerbitzuaren txosten bat.

Erabakia bakar-bakarrik Irakasleen klaustruak eta Eskola Kontseiluak hartuko dute, eta departamentuak parte hartuko du soilik programan sartu nahi duten ikastetxeen egokitasuna ezartzeko.

Eta gainera, departamentuak aurreikusitakoaren arabera, ez zaie tratamendu edo aukera bera emanen Nafarroako ikasle guztiei. Kontuan hartuta zein ikastetxetan dauden matrikulatuta, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza bat ala beste bat izaneko dute.

Erabaki horiek hautsi egiten dute Nafarroako ikasle guztien aukera-berdintasuna, edozein direla ere haien familien erosahalmena eta haien bizilekua, atzerriko hizkuntzak ikasterakoan (berezi Ingelesa) eta PAIn matrikulatuta.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko du Hezkuntza Departamentuaren asmoa, ikastetxe publikoetan Ingeleseko Ikasteko Programaren ezarpenerako eta irteerarako araudi berriazko bat onestearna, zeinetan Departamentuak eginkizunez aktiboa izaneko baitu irteeran eta erabakigarria, berriz, ezarpenean.

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du ikastetxe publikoetan Ingeleseko Ikasteko Programaren ezarpena eta garapena aukera-berdintasunarekin gauzatu dadin bertan eskolatutako ikasle guztientzat, edozein direla ere haien familien erosahalmena eta haien bizilekua. Helburu horrekin, jarraituko du hainbat alderdi ezartzen eta hobetzen, besteak beste, aniztasunari, hezkuntzako behar bereziak dituzten ikasleei, gutxiengoei, immigrazioari edo eskolatze berantiarri eman beharreko arreta.

Corellan, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko.**

### *IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako mozio hau aurkezten du Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri ezar ditzan atxilo daudenei laguntza medikoa emateko eta polizia-etxeetako zaintza-eremu guztietan bideo eta audio grabazioa ezartzeko.

Amnesty Internationalek, beste GKE nazional eta nazioartekoekin batera eta Nazio Batuen Erakundeko eta Europako Kontseiluko zenbait organorekin batera, urteak daramatza kezka agertzen Espainian legea betearazteko ardura duten funtzionarioek eginiko torturengatik eta emaniko beste tratu anker, gizagabe edo laidogarriengatik.

Nazioarteko akordio eta itun ugarik gomendatzen dute tratu txarrei aurre hartzeko neurriak hartzea. Espainia, gainera, partaide da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean, Torturaren eta beste tratu edo zigor anker, gizagabe edo laidoga-

rrien aurkako Nazio Batuen Konbentzioan (Torturaren aurkako Konbentzioa) eta Giza Eskubideen eta Oinarritzko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmenean (Giza Eskubideen Europako Hitzarmena).

Horrela, Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 3. artikulua Espainiako agintariak behartzen ditu bermatzera inork ez duela torturarik edo bestelako tratu txarrik izanen. Artikulu hori oinarri, gure ustez, Nafarroan zenbait neurri hartu behar dira, legegintzakoak, judizialak eta administratiboak, gerta daitezkeen tratu txarrak ekiditeko.

Gainera, ikuspuntu administratibotik arauz kanpoko egoeran dauden pertsonen kasuan, administrazio publiko guztien babesa nahitaezkoa bihurtzen da talde hori ez dadin benetan babesgabe gelditu.

Azpimarratu beharra dago, hain zuzen ere, giza eskubideen aldeko zenbait erakundek onartzen dutela poliziek batzuetan zailtasunak izaten dituztela beren betebeharra betetzeko, arriskuak izan daitezkeen pertsonen aurka aritzen direnean edo horiek indarkeria erabil dezaketenean, bai eta poliziek arriskuak izaten dituztela ere.

Horregatik, gure ustez, ikerketak, protokoloak edo bestelako elementuak, esate baterako bideo-kamarak eta audio sistemak, baliagarriak dira balizko tratu txarren arduradunek beren ekintzen kontuak eman ditzaten, eta baliagarriak dira, gainera, tratu txarren ustezko biktimak eta salaketa faltzuen biktima izan daitezkeen poliziak babes- teko. .

Arreta mediko ona ere ziurtatu beharra dago; bermatzailea eta argia, atxilotutako pertsonen kasuan. Horregatik, baliagarria eta interes oso handikoa da Foruzaingoak tresna bat izatea, jardute-protokolo bat, pertsona bat atxilotzen duenerako, atxilotetak irauten duen bitartean eta haren amaieran zer gertatzen den jasoko duena.

Proposamenaren helburua ez da inongo kolektibori epaiketa sumarioa egitea; aitzitik, nahi duguna da susmoak eta juzguak gainditzeko balioko duten mekanismoak jartzea gardentasuna eskatzen duten gaitan.



Hori dela eta, honako hau erabakitzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea bideo eta audio grabazioa ezar dezan Foruzaingoaren polizia-etxeetako zaintza eremu guztietan eta atxilotutako pertsonak egon daitezkeen toki guztietan, halako moduz non atxilotua grabatu egiten baita atxilotua dagoen epe guztian; ilungunerik ez egoteko modua eginen da, salbu eta hori bere intimitate-eskubidearen aurkakoa bada edo abokatuarekin edo sendagilearekin pribatuan egoteko eskubidearen aurkakoa. Grabazio horiek leku seguruan gorde eta zaindu behar

dira arrazoizko epe batean, epaileek ikuskatzea eskatzen badute eskuragarri egon daitezen bermatzeko.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea protokolo bat ezar dezan, sei hilabeteko epean, atxilotuentzako laguntza medikoari buruz, zehazteko zer egin behar den atxilotu eta berehala, atxilotetak irauten duen bitartean eta, azkenik, atxiloteta amaitu aurretik.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Vatikanoko estatuarekin 1979ko urtarrilean sinatutako akordio guztiak indargabetu ditzan.**

### *MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Vatikanoko estatuarekin 1979ko urtarrilean sinatutako akordio guztiak indargabetu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

1979ko urtarrilaren 3an, Espainiako Konstituzio berriak indarra hartu ondotik bost egun baino ira-

gan ez zirenean, Vatikanoko Hirian sinatu ziren "Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko akordioak".

Lau dira sinatutako akordioak:

– Gai juridikoei buruzko akordioa.

– Irakaskuntzari eta gai kulturei buruzko akordioa.

– Indar Armatuendako erlijio-laguntzari eta apaizen eta erlijiosoen soldadutzari buruzko akordioa.

– Gai ekonomikoei buruzko akordioa.

Akordio horietan berrikusi zen 1953ko Konkordantua, diktadura frankistan sinatua, nazionalkatolizismoaren printzipioei jarraituz. Hala sektore laikoek nola talde katoliko batzuek hainbat aldiz adierazi dute 1979an sinatutako akordioetan frankismoaren mesede eta salbuespen asko daudela, gai juridiko eta ekonomikoetan eta hezkuntzan.

Akordio horiek Konstituzioaren aurreko aldiari negoziatu ziren, eta pribilegio ugari eman zizkionten Espainiako Apezpiku Batzarrari. Beraz, Espainiako Estatuaren izaera ez-konfesionalaren eta Espainiako Konstituzioaren aurkakoa dira. Aldi berean, Espainiako herritarren erabakimena higitzen dute hezkuntzako gaietan, kalte ekonomikoa dakarte eta, azken buruan, espainiar subiranotasuna atzerriko estatu baten menpe uzten dute.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du nafarrek eskubidea dutela beraien erabakiak hartzeko Foruaren Hobekuntza eta Espainiako Estatuak eskualdatutako eskumenetan ezarritakoari jarraikiz. Halaber, adierazten du erabaki subirano horiek atzerriko estatuen esanetara egotearen aurka daudela erabat.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du, Hezkuntzaren Lege Organikoaren 6.bis artikulua-ren 2.c) idatz-zatiaren arabera, hezkuntzako administrazio eskudunei dagokiela –eta, beraz, Nafarroako Foru Komunitateari ere bai– “ezartzea zein izanen den berariazko ikasgaien blokeko ikasgaien edukien ordutegia,” eta horien artean erlijio ikasgaia sartzen da.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, “Espainiako Estatuaren eta

Egoitza Santuaren arteko akordioak” izenarekin Vatikanoko Estatuarekin sinatutako akordio guztiak indargabetu ditzan, 1979ko urtarrilean atzerriko lurraldean sinatu eta Konstituzioaren aurreko aldiari negoziatu zirenak, pribilegio ugari ematen dizkiotelako Espainiako Apezpiku Batzarrari, eta, horren ondorioz, Espainiako Estatuaren izaera ez-konfesionalaren eta Espainiako Konstituzioaren aurkakoak direlako.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren lege-aldaketak egin ditzan, erlijio ikasgaia ez dadin sar Espainiako hezkuntza sisteman, hezkuntza moderno, zientifiko, berritzaile eta kalitatezko baterantz aurrera egiteko.

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan garrantzia.**

### *GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aitor dezan merkataritza ibiltariak Nafarroan daukan

garrantzia. Mozioa 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da handitu dezan Nafarroako Lanbide Heziketako ikaste-txeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua.**

*OSOKO BILKURAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Osoko Bilkuran izapidetu dadin Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita handitu dezan Nafarroako Lanbide Heziketako ikaste-

txeetan eskola-orientaziora bideratutako orduen kopurua. Mozioa 2016ko uztailearen 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, “Levántate contra el bullying” elkarteari buruzkoa.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, “Levántate contra el bullying” elkarteari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Esther Korres Bengoetxeak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko, foru parlamentaria denak,

Legebiltzarrarreko Erregelamenduari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Hezkuntzako kontseilari Mendoza jaunak erantzun dezan.

Parlamentu-talde honek behin baino gehiagotan azaldu du *bullying*aren inguruko kezka. Horren harira, ekainaren 30ean kontseilariaren agerraldia eskatu zuen departamentuak abian jarri duen laguntza programa azal zezan. Jakin izan dugu Iruñeko itunpeko ikastetxe batek konbenioa sinatu duela “Levantate contra el bullying” elkartearekin. Gobernuak bazuen horren berririk? Eta, baldin bazekien, zer-nolako berme profesionala du horrelako elkarteak ikastetxeetan aritzeko bai publikoetan bai kontzertatuetan? Hezkuntza Departamentuaren konfidantzarik badu elkarte honek?

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko elikatzea kontratatzeke lizitazio-orrietako gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko elikatzea kontratatzeke lizitazio-orrietako gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Joan den urriaren 26an Nafarroako Gobernuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileari baimena eman zion esparru-akordio bat egiteko, Nafarroako Ospitaleguneko elikatzea kontratatze aldera, bertako sukaldeen kudeaketa berriz ere publikoa egin aurretik, hori 2017ko ekainerako aurreikusita baita. Aurreikusita dago une horretatik aurrera sistema publikoak bere gain hartuko duela janariaren prestaketa, eta elikagaiak zuzenean erostea ere bai.

Testuinguru horretan, gogoratu behar da Nafarroako Parlamentuak onetsitako ebazpena, zeinak

Nafarroako Gobernua premiatzen baitzuen jarraitibideak eman ditzan, hurbiltasuneko eta, ahal den neurrian, ekologikoa izan dadin ikastetxe publiko, ospitale, zahar-etxe eta gainerako zentro publikoetako elikadura-produktu guztien kontratazio publikoa, kasuko sektoreekin lankidetzan.

Halaber, Gobernua premiatzen zuen lizitazio-prozeduretan gizarte- eta ingurumen-klausulak zehatz ditzan, produktu horiek erostean gizarte-eta ingurumen-alderdiak aintzat har daitezten.

Hori dela-eta, honako galdera hau aurkezten dugu:

Kontuan hartuko al dira gizarte- eta ingurumen-alderdi horiek, Nafarroako Ospitaleguneko elikatzea kontratatzeko lizitazio-orrietan?

Iruñean, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

---

## **Galdera, Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruzkoa.**

*JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin José Miguel Nuinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Garapen Ekonomikorako Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Agoitz-Irunberri NA 150 errepideko 37. kilometro-puntuan istripu batzuk izan dira, Irunberriko sarreran.

**1.** Zenbat gertakari izan dira leku horretan, 2006. urteaz geroztik?

**2.** Ba al dago planik kilometro-puntu hori aldatzeko, biribilgune berri bat edo, bestela, oinezkoentzako pasabide bat eginez?

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

## **Galdera, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa.**

### *DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Basque Ultra Trail Series zirkuituari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Araudiak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

[www.basqueultratrail.com](http://www.basqueultratrail.com) helbidean honakoa irakur daiteke:

“Trail 52 Sport Mendi Kluba (inscrita en el Registro de Entidades Deportivas con el nº CD0006383 y cumpliendo los requisitos precep-

tuados en el decreto 29/1989 de 14 de febrero y con nº de CIF G95840914) organiza el Circuito Basque Ultra Trail Series con el apoyo institucional del Gobierno de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Gobierno de la Comunidad Foral de Navarra; de las Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba y de los Ayuntamientos de Bilbao, Vitoria/Gasteiz, Iruñea/Pamplona y Donostia/San Sebastián.”

Lasterketaren zati bat, horrenbestez, Nafarroan eginen da, maiatzaren 5etik 7ra Gasteiztik Iruñera doan etapan, eta abuztuaren 4tik 6ra Iruñetik Donostiara doan etapan.

Webguneko sarrerako testu horrek dioenez, lasterketak Nafarroako Gobernuaren babes instituzionala dauka.

– Zein da eta zertan gauzatzen da, zehazki, Nafarroako Gobernuak lasterketa horri ematen dion babes instituzionala? Eman dizkio dagoeneko lasterketa egiteko beharrezkoak diren baimeak? Laguntzarik emanen al dio Nafarroako Gobernuak lasterketari, bai finantziarioari dagoenez, bai azpiegiturari dagokionez, edo bai bestelako alderdiren bati dagokionez?

Iruñean, 2016ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa.**

### *ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

- Zein izan dira Hezkuntza Departamentuak Europako Gizarte Funtsaren hezkuntzarako atala kudeatzeko egindako izapideak?
- Zein jarduketa egin dira Hezkuntza Departamentuan funts horren kontura?

– Irakasleei eskatu al zaie funts horien bidez finantzatutako jardueretan parte hartu izana sinatzeko?

– Informazioa eman al zitzaion irakasleei Europako Gizarte Funtsaren bidez finantzatutako jardueretan parte hartu behar omen zuten irakasleen informazio-eskaerari ez zitzaion erantzun. Zergatik?

– Lizarraldea BHIra egindako bisitan Hezkuntza Batzordeari adierazi ziotenaren arabera, Europako funts horien bidez finantzatutako jardueretan parte hartu behar omen zuten irakasleen informazio-eskaerari ez zitzaion erantzun. Zergatik?

Corellan, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

---

## **Galdera, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diru-zenbatekoei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERASJAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higueras jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoek gastu berekietarako 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietan jasotako diru-zenbatekoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen Alberto Catalán Higueras jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Zer diru-zenbatekoak jaso ditu Nafarroako ikastetxe publiko bakoitzak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, 2014, 2015 eta 2016. urteetan, ikastetxearen gastu berekietarako?

Corellan, 2016ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higueras

## **Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.**

### *IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez eskatzen baitu idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian Osoko Bilkuran ahozko erantzuna jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: “Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa,” hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatutako galdera idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez. Galdera 2016ko maiatzaren 24ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza